

XVIII TXOSTENA

Euskarazko argitalpenak 2022



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

HONAKO HAUEKIN LANKIDETZAN:

GREMIO
DE EDITORES
DE EUSKADI



EUSKADIKO
EDITOREEN
ELKARTEA

FEDERACIÓN DE GREMIOS
DE EDITORES DE ESPAÑA

AURKIBIDEAK

EDUKIEN AURKIBIDEA

SARRERA	5
METODOLOGIA	6
ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR	9
ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ	11
Euskarazko argitalpena guztira - euskaraz argitaratutako izenburuak	11
Argitalpen produkzioa	12
Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tartearak	13
Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta.....	14
Argitalpen produkzioa, sailen arabera	15
Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera	16
Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera	19
Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera.....	22
Katalogoko izenburuak	23
Katalogoko izenburuak, sailen arabera	24
MERKATURATZEA	27
2022ko fakturazioa.....	27
Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera	27
Fakturazioa sailez sail jatorriaren arabera	29
Liburuak merkaturatzeko bideak	32
Batez besteko salneurriak eta saldutako aleak	35
Unibertsitatekoak ez diren testuak, euskaraz.....	37
BESTE DATU BATZUK	43
Enplegua	43
Egile eskubideak.....	43
ARGITALPEN PUBLIKOA EUSKARAZ	45
LABURPENA	47
Sailen arabera banaketari buruz aipatu beharreko alderdiak	50
ZHAZTAPEN METODOLOGIKOAK	52

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula.- Unibertsoa eta lagina	8
2. Taula.- Euskaraz argitaratu zuten argitaletxeak	9
3. Taula.- 2022ko euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak	10
4. Taula.- Euskaraz argitaratutako izenburuak guztira	11
5. Taula.- Euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak	12
6. Taula.- Paperean argitaratutako izenburuen 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza.....	12
7. Taula.- Paperean argitaratutako aleen 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza	13
8. Taula.- Batez besteko argitaraldiaren 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza	13
9. Taula.- Euskaraz argitaratutako izenburuak	13
10. Taula.- Argitaletxe kopurua, euskaraz argitaratutako izenburuen ehunekoaren arabera, guztizkoarekin alderatuta. Ipar euskal herria kontuan hartu gabe.....	14
11. Taula.- Euskarazko izenburuen argitalpena paperean, sailen arabera, 2022an. Argitaletxe pribatuak	16
12. Taula.- Paperean argitaratutako izenburuak sailen arabera. 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza	18
13. Taula.- 2022an euskaraz ekoizitako aleak, sailen arabera (milakotan). Argitaletxe pribatuak	19
14. Taula.- Aleak, sailen arabera. 2018-2022 bilakaera. 2021. Urtearekiko aldakuntza	21
15. Taula.- Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera, 2022an. Argitaletxe pribatuak	22
16. Taula.- Batez besteko argitaraldia paperean sailen arabera.	23
17. Taula.- Katalogoko izenburuak euskaraz, 2022an. Argitaletxe pribatuak.....	23
18. Taula.- Katalogoko euskarazko izenburuak, sailen arabera, 2022an. Argitaletxe pribatuak	24
19. Taula.- Izenburu biziak, sailen arabera. 2018-2022 bilakaera. 2021 urtearekiko aldakuntza	26
20. Taula.- Euskarazko fakturazioa 2022an. Argitaletxe pribatuak.....	27
21. Taula.- Euskarazko fakturazioa 2022an, sailen arabera. Argitaletxe pribatuak.....	28
22. Taula.- Fakturazioa, sailen arabera. 2018-2022 bilakaera. 2021. Urtearekiko aldakuntza	30
23. Taula.- Euskarazko fakturazioa 2021an, merkaturatze bideen arabera. Argitaletxe pribatuak	32
24. Taula.- Fakturazioa, merkaturatze bideen arabera. 2018-2022 bilakaera. 2021 urtearekiko aldakuntza	33
25. Taula.- Saldutako aleak. 2018-2022 bilakaera. 2021. Urtearekiko aldakuntza.....	35
26. Taula.- Argitaratutako aleen, saldutako aleen eta fakturazioaren arteko erlazioa	35
27. Taula.- EAE, NFE, Ipar EH eta beste autonomia erkidego batzuen parte hartzea, hainbat magnitudetan	36
28. Taula.- 2022an argitaratutako unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburuak.....	37
29. Taula.- 2022an argitaratutako unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko aleak (milakotan).	37
30. Taula.- Unibertsitatekoak ez diren euskarazko aleak (x 1.000). 2018-2022 bilakaera. 2021. Urtearekiko aldakuntza	38
31. Taula.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko batez besteko argitaraldia 2022an	39
32. Taula.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburu biziak 2022an	39
33. Taula.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburu biziak 2018-2022 bilakaera. 2021. Urtearekiko aldakuntza	40

34. Taula.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko fakturazioa 2022an.....	40
35. Taula.- Unibertsitatekoak ez diren euskarazko testuen fakturazioa. 2018-2022 bilakaera. 2021. Urtearekiko aldakuntza	41
36. Taula.- Nominapeko langileen kopurua. Enpresa pribatuak	43
37. Taula.- Eskubideak erosteko egindako ordainketen estimazioa	44
38. Taula.- Erakunde publikoen argitalpenen balioen banaketa, sailen arabera.....	46
39. Taula.- Lortutako balioen banaketa, argitaletxeen tipologiaren arabera.....	47
40. Taula.- Euskarazko argitalpenaren ratio nagusiak, argitaletxeen tipologiaren arabera.	48
42. Taula.- Euskarazko liburuen argitalpenaren eta fakturazioaren datu nagusiak, sailen arabera (argitaletxe pribatuak).....	49
42. Taula.- Euskaraz argitaratutako izenburuen eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta Espainian argitaratutako izenburuen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak) 50	50
43. Taula.- Euskaraz argitaratutako aleen eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta Espainian argitaratutako aleen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak)	50
44. Taula.- Euskaraz argitaratutako izenburu bizien eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta Espainian argitaratutako izenburuen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak) 51	51
46. Taula.- Euskarazko fakturazioaren eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta Espainian argitaratutako izenburuen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak).....	51
46. Taula.- Haur eta gazte literatura eta unibertsitatekoak ez diren testuak sailen ehunekoak, hainbat hizkuntzatan, aztertutako magnitudeen arabera (argitaletxe pribatuak).	51

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa.- Argitaletxeen tipologia (%)	9
2. grafikoa.- Argitaletxeen ehunekoa, guztizkoarekin alderatuta euskaraz argitaratutako lanen arabera ..	14
3. grafikoa.- Argitaletxe pribatuek euskaraz eta paperean argitaratutako izenburuen banaketa sailka, jatorriaren arabera (%)	18
4. grafikoa.- Sail bakoitzean euskaraz argitaratutako aleak, argitaletxe pribatuetan, jatorriaren arabera (%-etan).....	21
5. grafikoa.- Katalogoko euskarazko izenburuen banaketa sailen arabera, argitaletxe pribatuetan, jatorriaren arabera (%)	26
6. grafikoa.- Euskarazko fakturazioaren banaketa, sailen arabera, argitaletxe pribatuetan (%)	29
7. grafikoa.- Euskarazko fakturazioaren bilakaera. Guztira eta sailen arabera (2018-2022)	31
8. grafikoa.- Euskarazko fakturazioaren banaketa, merkaturatze bideen arabera, argitaletxe pribatuetan (%)	33
9. grafikoa.- Euskarazko fakturazioaren bilakaera. Guztira eta merkaturatze bideen arabera (2018-2022)	34
10. grafikoa.- Unibertsitatekoak ez diren euskarazko testuen fakturazioaren bilakaera. Osoa eta sailen arabera (2018-2022)	42
11. grafikoa.- Lortutako balioak, argitaletxeen tipologiaren arabera. (% bertikalak)	48
12. grafikoa.- Haur eta gazte literatura eta unibertsitatekoak ez diren testuak sailen argitalpena eta fakturazioa, aztertutako hizkuntzetan (%)	51

SARRERA

Kulturaren Euskal Behatokiak euskarazko argitalpenei buruzko txostenaren hemezortzigarren txostena aurkeztu du, 2022ko ekitaldikoa. Txosten hau Euskadiko Editoreen Elkartearekin elkarlanean egin dugu.

Txosten honen abiapuntu izan zen azterlanean euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datuak bildu ditugu, argitaratzeko tokia edozein izanik ere. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko datuak ez ezik, Frantziako Estatuan egindako produkzioa ere hartu dugu aintzat, hau da, Ipar Euskal Herrikoa. Horretaz gain, oraintxe aipatu ditugun lurraldeetatik kanpo dauden eta euskarazko argitalpenak egin dituzten argitaletxeen produkzioak ere hartu ditugu.

Halaber, Administrazio Publikoaren eta haren mendeko erakundeen euskarazko argitalpenei buruzko datuak ere biltzen dira txostenean. Aurten ere, esker ona adierazi nahi diegu, eman diguten laguntzagatik, Euskadiko Editoreen Elkarteari, Conecta Research & Consulting enpresak bidalitako galdetegiari erantzun dioten enpresei, ISBNaren agentziari eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioari. Horiei esker egin ahal izan dugu ikerlan hau.

METODOLOGIA

Arloa

Ikerketa honen azterketa eremua **euskarazko liburuen argitalpena** da, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkarteen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategoria honen barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko (Ipar EH) argitaletxeak.
- Beste Autonomia Erkidego batzuetako (Beste AE batzuk; Beste AEak) argitaletxeak.
- Erakunde publikoak (EP).

Horiek guztiak 2022. urtean argitalpenaren eremuko barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

Informazioaren bilketa

Azterlanean islatuta dagoen informazioa zenbait iturritatik jaso dugu:

- Euskadiko enpresa pribatuak. Horiei buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko argitalpenei buruzko XXVIII. txostenean bilduta dago.
- Euskaditik kanpoko argitalpen-enpresa pribatuetara bidalitako galde-sorta egituratu baten bitartez lortutako informazioa.
- Erakunde publikoei buruzko informazioa eta euskarazko argitalpenei buruzko beste zifra batzuk jaso dira telefono bidezko inkesten eta ISBNaren datu-basearen bitartez.

Eskuratutako informazioaren aurkezpena

Txosten honetan, lehenik eta behin, euskarazko argitalpeni buruzko datu orokorrak bildu ditugu: eragile editoreei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak. Horren ondoren, argitalpen pribatuari buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu, Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako Autonomia Erkidegoak kontuan hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Liburuaren Barne Merkataritzari buruzko txostenean dago jasota. Txosten honetan, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako Autonomia Erkidegoetako argitaletxe pribatuenak ere sartu ditugu.

Beste atal batean, erakunde publikoen argitalpeni buruzko informazioa eskainiko dugu. **Dena dela, garrantzitsua da aipatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Merkataritzari buruzko txostenean**

Euskal Herriko unibertsitate publikoak sartzten direla urtero. Beraz, erakunde horiei buruzko datuak ez dira argitalpen publikoari buruzko atalean sartuko, argitalpen pribatuaren atalean baizik.

Azalpenak

Azterketan, euskaraz argitaratutako lanei buruzko galderak egin ditugu.

Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanen kopuruaren eta ISBNan (ISBN datu-basea edo Liburuaren Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2022an erregistratutako liburuaren kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure iritziz: berrargitaratutako lanak dira, editoreak berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenak eta horientzat, zenbait kasutan, ez da ISBN zenbaki berririk eskatu.

Azterketaren fitxa teknikoa

Unibertsoa	132 argitaletxe. 128 argitaletxek argitaratu dute euskaraz 2022an (ISBNaren datuen arabera), gehi Ipar Euskal Herriko 4 argitaletxe.
Laginaren tamaina	<p>62 argitaletxe:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 58 pribatuak • 4 publikoak <p>58 argitaletxe pribatuen artetik, 36 EAEkoak dira (laginaren % 58,1), 6 NFEkoak, 4 Ipar Euskal Herrikoak eta 12 beste AE batzuetakoak.</p> <p>Guztira, argitaletxe pribatuen % 48,3k eta erakunde publikoen % 33,3k erantzun dute. Galdeketa erantzun ez dioten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako iturrietatik jaso dugu.</p>
Lagina	Argitaletxeen fakturazioaren arabera sailkatua.
Laginaren errorea	<p>Argitaletxeen errorea honako hau da:</p> <p>Errorea = + 12,45 % (2)</p> <p>% 95eko (1) konfiantza mailarako</p> <p>(1) $P = Q = \% 50$</p> <p>(2) $E = \pm \sqrt{K (1-f) \times P \times Q / (n-1)}$</p>
Galdeketa mota	Egituratua
Aplikazioa	Norberak betea
Landa lanerako datak	2023ko uztailetik urrira, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuak, argitaletxe publikoak eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeak. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak 2023ko martxoaren 1etik azaroaren 2ra bitarte lortu ziren.
Datuak taulan jartzea	Datuak Conecta Research & Consulting enpresan grabatu dira, eta taulan jarri

1. taula - Unibertsoa eta lagina


	Unibertsoa	Lagina	Laginaren %
EAE	58	36	62,1
NFE	15	6	40,0
Ipar EH	4	4	100,0
Beste AE batzuk	43	12	27,9
Argitaletxe pribatuak, guztira	120	58	48,3
Erakunde publikoak	12	4	33,3
GUZTIRA	132	62	47,0

ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

2022an, 132 argitaletzek -publiko nahiz pribatu- argitaratu dute izenbururen bat euskaraz, Euskal Herrian edo Espainiako eta Frantziako Estatuetan. Tipologiaren eta kokapen geografikoaren arabera, honela banatzen dira:

- 58 argitaletxe pribatuk Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dute egoitza¹. Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartearen bildutako argitaletxeak eta, elkarte horren barruan egon ez arren, 2022an argitaratu duten argitaletxeak
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 15 argitaletxe pribatu.
- Ipar Euskal Herriko lurraldeetako 4 argitaletxe pribatu.
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean duten 43 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 12 erakunde publiko (EP). Argitalpen agenteak dira, jarduera nagusia argitalpenaz beste bat duten erakundeak direlako.

1. grafikoa.- Argitaletxeen tipologia (%)



2. taula.- Euskaraz argitaratu zuten argitaletxeak

	Argitaletxe pribatuak					Erakunde publikoak	% Bertikalak, guztira
	Guztira	EAU	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk		
EAE	67	58	0	0	0	9	50,8
NFE	18	2	13	0	0	3	13,6
Ipar EH	4	0	0	4	0	0	3,0
Kataluniako AE	16	0	0	0	16	0	12,1
Madrilgo AE	13	0	0	0	13	0	9,8
Beste AE batzuk	14	0	0	0	14	0	10,6
GUZTIRA	132	60	13	4	43	12	100,0
% Horizontalak	100	45,5	9,8	3,0	32,6	9,1	

¹ Nafarroako bi argitaletxe Euskadiko Editoreen Elkarteko kide dira, eta horien datuak Euskal Autonomia Erkidegoan sartuta daude EAEko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean, baita hezkuntzaren arloko erakunde publiko baten datuak ere.

3. taulan gehiago zehazten da euskaraz argitaratzen duten argitaletxeen kopurua, tipologiaren arabera. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izenburu gehien dituztenak ere bildu dira. Horretaz gain, informazio modura, egilearen eta editorearen datuak ere sartu ditugu (azterlanean ez dira aintzat hartu).

3. taula.- 2022ko euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak

Editore mota	Probintzia	Agenteak	Izenburu gehien dituzten argitaletxeak
GUZTIRA	229	2.163	
Egileak/editoreak, guztira	97	171	
Araba	4	6	
Gipuzkoa	40	74	
Bizkaia	41	63	
Nafarroa	8	22	
Madril	3	5	
Beste batzuk	1	1	
Pribatua, guztira	116	1.797	
EAE ²	58	1.354	
Araba	8	66	
Gipuzkoa	24	430	
Bizkaia	26	858	
Nafarroa	15	121	Pamiela ; Txalaparta Argitaletxea ; Igela Argitaletxea ; Cenlit
Bartzelona	16	70	Vicens Vives ; Tekman Education SL
Madril	13	184	Anaya ; Susaeta ; Bruño
Valentzia	5	32	Difusión Avances de Enfermería (D.A.E.)
Badajoz	2	25	
Sevilla	1	3	
Beste batzuk	6	8	
Publikoa, guztira	12	159	
Hezkuntza erakunde publikoak	1	56	
Bizkaia	1	56	Euskal Herriko Unibertsitatea
Autonomia eta tokiko administrazioaren erakunde ofizialak	11	103	
Araba	3	50	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia ; Arabako Foru Aldundia
Gipuzkoa	3	18	Gipuzkoako Foru Aldundia
Bizkaia	2	15	Euskaltzaindia
Nafarroa	3	20	Nafarroako Gobernua Argitalpen Funtza
Ipar Euskal Herria	4	36	

² Nafarroako bi argitaletxe Euskadiko Editoreen Elkarteko kide dira, eta horien datuak Euskal Autonomia Erkidegoan sartuta daude EAEko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean, baita hezkuntzaren arloko erakunde publiko baten datuak ere.

ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ

EUSKARAZKO ARGITALPENA GUZTIRA - EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

Kontuan hartzen badira agente eta argitaletxe guztiak (egile editoreak barne³), 2.163 izan dira guztira 2022an euskaraz argitaratutako izenburuak. Izenburuen % 83,1 argitaletxe pribatuenak dira (1.797 izenburu), % 7,4 argitaletxe publikoenak (159 izenburu), % 7,9 egile/editoreenak (171 izenburu) eta % 1,7 Ipar Euskal Herrikoak (36 izenburu).

4. taula - Euskaraz argitaratutako izenburuak guztira

	Agenteak/Argitaletxeak	2022ko izenburuak guztira
GUZTIRA	229	2.163
Egilea / editorea (*)	97	171
Pribatua (*)	116	1.797
Publikoa (*)	12	159
Ipar Euskal Herria	4	36

(*) ISBNren agentziak 2022an euskaraz argitaratutako izenburuei buruz emandako datuak.

Egileak/editoreak azterlan honen ("Euskarazko argitalpeni buruzko XVIII. txostena") unibertsoetik kanpo daudenez, hemendik aurrera ez ditugu kontuan hartuko.

Beraz, 2022an euskaraz argitaratutako 2.163 izenburuetatik albo batera utziko bagenitu egile/editoreen 171 izenburuak, **1.992** izenburu izango genituzke, argitaletxe pribatuek eta publikoek argitaratuak. Multzo horrek osatuko luke azterlan honetarako aintzat hartutako berariazko unibertsoa.

Oharra: argitaletxeen unibertsoaren barruan editoreen elkarteko kide den Hezkuntza Erakunde Publiko bat dagoenez, alor pribatuan kokatu izan da beti. Hortaz, argitaletxe horri buruzko informazio guztia sektore pribatuaren barruan aztertuko dugu hemendik aurrera.

- Pribatua: 1.797 + 56 (elkartekide izateagatik alor honetan sartzen den hezkuntzaren arloko erakunde publiko 1en izenburuak dira) + 36 Ipar Euskal Herrikoak. Guztira, **1.889** izenburu, txostenean aipatuko ditugunak.
- Publikoa: 159 izenburu ken 56 (pribatuaren barruan); hots, **103** izenburu, dagokion atalean banakatuko ditugunak.

³ Liburu bat beren kabuz, argitaletxe profesional baten laguntzarik gabe, argitaratu nahi duten pertsonak eta noizbehinka argitalpen bat egin nahi duten erakunde publikoek edo pribatuek ISBN kode bat eska dezakete, egile/editore gisa.

ARGITALPEN PRODUKZIOA

2022an, Euskadiko, beste Autonomia Erkidego batzuetako eta Ipar Euskal Herriko argitaletxe pribatuek, oro har, 1.889 izenburu argitaratu dituzte euskaraz; horietatik 1.349, paperean. Euskaraz argitaratu diren izenburuen proportzio handiena Euskadiko Autonomia Erkidegoko argitaletxeek argitaratu dituzte (% 77,5 guztira eta % 80,4 paperean), eta atzetik datoz Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxeak (% 3,5 guztira eta % 3,6 paperean), Ipar Euskal Herrikoak (% 1,9 guztira eta % 2,4 paperean) eta beste Autonomia Erkidego batzuetako argitaletxeak (% 17,0 guztira eta % 13,6 paperean).

2022an paperean argitaratutako izenburuei dagokienez, % 1,0 egin dute behera aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, NFEen % 14,3 egin dute gora (aurreko ekitaldiaren ildoari jarraikiz), beste AE batzuk egonkor izan dira % 0,5eko hazkundearekin, EAEn % 1,8ko jaitsiera izan da eta Ipar Euskal Herrian ere % 3,0 egin du behera.

Argitaletxe hauek 2.787.411 ale argitaratu dituzte 2022an; hau da, % 0,7ko jaitsiera 2021ari dagokionez. Ale gehienak EAEn argitaratu dira (% 93,5).

2.066 ale argitaratu dira, batez beste, aurreko urtekoaren zenbateko oso antzekoa izanik.

Jarraian, euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak eta azken urteetan izandako bilakaera aztertuko ditugu, argitaratutako izenburuen kopuruari, paperean inprimatutako izenburuei, produktutako ale kopuruari eta batez besteko tiradari dagokienez.

5. taula.- Euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak

	Argitaratutako izenburuak	%	Paperean argitaratutako izenburuak	%	Paperean argitaratutako aleak	%	Batez besteko argitaraldia paperean
GUZTIRA	1.889	100,0	1.349	100,0	2.787.411	100,0	2.066
EAE	1.464	77,5	1.085	80,4	2.605.000	93,5	2.401
NFE	67	3,5	48	3,6	18.100	0,6	377
Ipar EH	36	1,9	32	2,4	20.159	0,7	630
Beste AEak	322	17,0	184	13,6	144.152	5,2	783

6. taula.- Paperean argitaratutako izenburuen 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza

	2020	2021	2022	Aldakuntza (%) 2021/2022
GUZTIRA	1.245	1.363	1.349	-1,0
EAE	1.053	1.105	1.085	-1,8
NFE	13	42	48	14,3
Ipar EH	33	33	32	-3,0
Beste AEak	146	183	184	0,5

7. taula.- Paperean argitaratutako aleen 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza

	2020	2021	2022	Aldakuntza (%) 2021/2022
GUZTIRA	2.666	2.807	2.787	-0,7
EAE	2.511	2.624	2.605	-0,7
NFE	7	16	18	12,4
Ipar EH	23	22	20	-6,2
Beste AEak	125	145	144	-0,8

8. taula.- Batez besteko argitaraldiaren 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza

	2020	2021	2022	Aldakuntza (%) 2021/2022
GUZTIRA	2.141	2.059	2.066	7,0
EAE	2.384	2.375	2.401	26,3
NFE	522	383	377	-6,3
Ipar EH	700	652	630	-21,6
Beste AEak	855	794	783	-10,3

EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN KOPURU TARTEAK

2022an, 132 argitaletxeen % 34,1ek izenburu bakarra argitaratu dute euskaraz. Argitaletxe horien % 28,8k 2-4 izenburu, eta % 15,2k 5-9 izenburu euskaraz. Argitaletxeen % 17,4k 10 izenburutik 49 izenburura bitarte kaleratu zituzten, eta gainerako % 4,5ak 50 izenburu edo gehiago, betiere euskaraz.

9. taula.- Euskaraz argitaratutako izenburuak

	Guztira %	Argitaletxeak guztira	Argitaletxe pribatuak				Argitaletxe publikoak
			EAE ⁴	NFE	Ipar EH	Beste AEak	
GUZTIRA	100,0	132	58	15	4	43	12
1 izenburu	34,1	45	20	5	0	18	2
2-4 izenburu	28,8	38	19	4	0	13	2
5-9 izenburu	15,2	20	8	2	0	6	4
10-49 izenburu	17,4	23	6	4	4	5	4
50 izenburu edo gehiago	4,5	6	5	0	0	1	0

⁴ Gogoratu EAEn barruan hezkuntza erakunde publiko bat eta Nafarroako 2 argitaletxe daudela.

EUSKARAZKO ARGITALPENAK GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA

Euskaraz argitaratutako izenburuek zenbateko ehunekoa osatzen dute argitaratutako izenburuen guztizkoari dagokionez?

Oro har (Ipar Euskal Herriko 4 argitaletxeak kontuan izan gabe), 128 argitaletxek argitaratu dute euskaraz 2022an. Erakunde horien % 42,2k euskarazko izenburuen % 25 baino gutxiago argitaratu dituzte; % 29,7k, aldiz, % 75 baino gehiago.

116 argitaletxe pribatuetatik, % 27,6k beren izenburuen % 75 baino gehiago argitaratu dituzte euskaraz; hots, 32 argitaletxek. Horietatik, 31 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) daude, eta 1 Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE). Argitaletxe pribatuetatik 15ek (10 dira EAEkoak) euskaraz argitaratu dituzte lanen % 50etik % 75era bitarte. Beste 16 enpresak beren izenburuen % 25etik % 49ra bitarte argitaratu dituzte euskaraz (7 EAEn), eta 53 argitaletxe pribatuk beren produkzioaren % 25 baino gutxiago kaleratzen dute euskaraz (10 EAEn eta 40 beste AE batzuetan).


Azterlanean jasotako 12 erakunde publikoei dagokienez, 6k beren izenburuen % 75 baino gehiago argitaratu dituzte euskaraz.

10. taula.- Argitaletxe kopurua, euskaraz argitaratutako izenburuen ehunekoaren arabera, guztizkoarekin alderatuta. Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe.

	Guztira	Pribatuak, guztira	Argitaletxe pribatuak (*)			Argitaletxe publikoak
			EAE ⁵	NFE	Beste AEak	
GUZTIRA	128	116	58	15	43	12
% 25 baino gutxiago	54	53	10	3	40	1
% 25 - % 49	17	16	7	7	2	1
% 50 - % 75	19	15	10	4	1	4
% 75 baino gehiago	38	32	31	1	0	6

(*) Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe

2. grafikoa.- Argitaletxeen ehunekoa, guztizkoarekin alderatuta euskaraz argitaratutako lanen arabera



⁵ Gogoratu EAEn barruan hezkuntza erakunde publiko bat eta Nafarroako 2 argitaletxe daudela.

ARGITALPEN PRODUKZIOA, SAILEN ARABERA

Atal honetan, euskarazko argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu (paperean argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak), sailen arabera. Sail bakoitzean honako alderdi hauek lantzen dira:

- **Helduentzako fikzioa:** eleberria, poesia eta antzerkia, bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...).
- **Haur eta gazte literatura:** haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- **Unibertsitatekoak ez diren testuak:** epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta Liburuak nahiz material osagarriak.
- **Ez fikzioa:**
 - *Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak:* zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorroztasun mailaren arabera, eta noiztat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
 - *Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak:* hainbat diziplina biltzen ditu, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia, besteak beste.
 - *Liburu praktikoak:* etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaia gidak, mapak, etab.
 - *Dibulgazioa orokorra:* sail honetan sartzen dira Dibulgazioko beste liburu batzuk saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
 - *Hiztegiak eta entziklopediak:* ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoaren diseinua errazteko:

- **Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erlijioa:** hau da, Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak, gehi Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak.
- **Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak:** hau da, Liburu praktikoak, Dibulgazio orokorra eta Hiztegiak eta entziklopediak.
- **Beste sail batzuk:** komikiak eta bestelakoak.

EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA

2022an, argitaletxe pribatuek 1.386 izenburu argitaratu dituzte euskaraz eta paperean. Izenburuen % 81,0 (1.122) EAEn argitaratu dira.

Sailen arabera, Unibertsitatekoak ez diren testuak dira argitaletxe pribatuek euskaraz argitaratutako izenburuen ehuneko handiena hartzen dutenak (% 38,7). Atzetik dator Haur eta gazte literatura, euskaraz argitaratutako izenburuen % 28,7rekin. Oro har, euskaraz paperean argitaratu diren izenburu guztien % 67,4 sartzen dira bi sail horietan.

Beste Autonomia Erkidego batzuetako sailen araberako banaketari erreparatzen badiogu (paperean argitaratutako izenburu guztien % 13,3 argitaratu dute), Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta gazte literatura % 54,3 eta %29,3 dira, hurrenez hurren. Bi sail horien batura paperean argitaratutako izenburuen % 83,7 da.

11. taula.- Euskarazko izenburuen argitalpena paperean, sailen arabera, 2022an. Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE (*)	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA (BALIO ABSOLUTUAK)	1.386	1.122	48	32	184
Helduentzako fikzioa	201	169	14	9	9
Eleberria	134	120	6	2	6
Poesia. Antzerkia	31	23	5	2	1
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	36	26	3	5	2
Haur eta gazte literatura	398	317	26	1	54
Unibertsitatekoak ez diren testuak	536	416	0	20	100
Haur Hezkuntza	57	48	0	0	9
Lehen Hezkuntza	239	174	0	8	57
DBH	167	136	0	2	29
Batxilergoa	13	8	0	0	5
Lanbide Heziketa	0	0	0	0	0
Liburuak eta material osagarriak	60	50	0	10	0
Fikziozkoak ez direnak	196	170	7	1	18
Zientziak, G. Zientziak, E. Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	140	128	7	0	5
Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	56	42	0	1	13
Beste batzuk	55	50	1	1	3


(*) NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartu dira

	Guztira	EAE	NFE (*)	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA (% BERTIKALAK)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Helduentzako fikzioa	14,5	15,1	29,2	28,1	4,9
Eleberria	9,7	10,7	12,5	6,3	3,3
Poesia. Antzerkia	2,2	2,0	10,4	6,3	0,5
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	2,6	2,3	6,3	15,6	1,1
Haur eta gazte literatura	28,7	28,3	54,2	3,1	29,3
Unibertsitatekoak ez diren testuak	38,7	37,1	0,0	62,5	54,3
Haur Hezkuntza	4,1	4,3	0,0	0,0	4,9
Lehen Hezkuntza	17,2	15,5	0,0	25,0	31,0
DBH	12,0	12,1	0,0	6,3	15,8
Batxilergoa	0,9	0,7	0,0	0,0	2,7
Lanbide Heziketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Liburuak eta material osagarriak	4,3	4,5	0,0	31,3	0,0
Fikziozkoak ez direnak	14,1	15,2	14,6	3,1	9,8
Zientziak, G. Zientziak, E. Zientziak, Zuzenbidea eta Erlijioa	10,1	11,4	14,6	0,0	2,7
Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	4,0	3,7	0,0	3,1	7,1
Beste batzuk	4,0	4,5	2,1	3,1	1,6

(*) NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartu dira CAE

Gehien argitaratzen den hirugarren saila Helduentzako fikzioa da (Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta gazte literatura sailen atzetik), hots, paperean argitaratutako izenburuen % 14,5.

Helduentzako fikzioaren barruan, honela banatzen dira generoak: Eleberria % 66,7, Poesia eta antzerkia % 15,4 eta Beste literatura batzuk % 17,9.




2022an euskaraz eta paperean argitaratutako izenburuen % 81,0 EAEko argitaletxe pribatuek egin dituzte. Proporzio hori handiagoa da honako sail hauetan, oro har, ateratzen den batez besteko ehunekoa baino: Helduentzako fikzioa (% 84,1%), Haur eta gazte literatura (% 79,6), eta beste sail batzuk (% 90,9).

Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeek paperean argitaratutako izenburu guztien % 13,4 osatzen dute, eta ehunekoa handiagoa da Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta gazte literatura sailetan.

3. grafikoa.- Argitaletxe pribatuek euskaraz eta paperean argitaratutako izenburuen banaketa sailka, jatorriaren arabera (%)

GUZTIRA	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	81,0	3,5	2,3	13,3



Jadanik esan denez, paperean argitaratutako izenburu kopurua % 1,7 igo da 2022an, aurreko urtearekin alderatuta. Unibertsitatekoak ez diren testuak kategoria bereziki nabarmendu da, % 4,5eko hazkundera izan duenez.

12. taula.- Paperean argitaratutako izenburuak sailen arabera. 2020-2022 bilakaera. 2021arekiko aldakuntza

Izenburuak	2020	2021	2022	Aldakuntza (%) 2021/2022
GUZTIRA	1.245	1.363	1.386	1,7
Helduentzako fikzioa	181	198	201	1,4
Haur eta gazte literatura	331	409	398	-2,7
Unibertsitatekoak ez diren testuak	492	513	536	4,5
Fikziozkoak ez direnak	187	191	196	2,8
Beste batzuk	54	52	55	5,8

Izenburuak (%)	2020	2021	2022	Aldea 2021/2022
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	
Helduentzako fikzioa	14,5	14,5	14,5	0,0
Haur eta gazte literatura	26,6	30,0	28,7	-1,3
Unibertsitatekoak ez diren testuak	39,5	37,6	38,7	1,0
Fikziozkoak ez direnak	15,0	14,0	14,1	0,2
Beste batzuk	4,3	3,8	4,0	0,2

EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, SAILEN ARABERA

2022an, argitaletxe pribatuek 2.787.411 ale argitaratu dituzte euskaraz, aurreko urtean baino % 0,7 gutxiago. Ale horietatik guztietatik gehiengoa, % 93,5, EAEn argitaratu dira, % 0,6 Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE), % 0,7 Ipar Euskal Herrian, eta % 5,2 beste AE batzuetan.

Sailei dagokienez, Unibertsitatekoak ez diren testuak saila izan da euskaraz ale gehien argitaratu dituen; aleen % 50,9. Jarraian, nahiz eta tarte handira, Haur eta gazte literatura dago (% 26,1). Bi sail horietako lanak batuta, euskaraz argitaratutako ale guztien % 77,0 osatzen dute.

13. taula.- 2022an euskaraz ekoiztutako aleak, sailen arabera (milakotan). Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE (*)	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA (BALIO ABSOLUTUAK)	2.787	2.605	18	20	144
Helduentzako fikzioa	277	263	5	3	6
Eleberria	209	202	2	1	5
Poesia. Antzerkia	28	25	2	0	1
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	40	36	1	2	1
Haur eta gazte literatura	728	666	11	1	50
Unibertsitatekoak ez diren testuak	1.418	1.333	0	15	70
Haur Hezkuntza	133	126	0	0	7
Lehen Hezkuntza	696	646	0	8	42
DBH	378	355	0	3	20
Batxilergoa	21	20	0	0	1
Lanbide Heziketa	0	0	0	0	0
Liburuak eta material osagarriak	190	186	0	4	0
Fikziozkoak ez direnak	253	236	2	0	15
Zientziak, G. Zientziak, E. Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	140	134	2	0	4
Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	113	102	0	0	11
Beste batzuk	111	107	1	1	2


(*) NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartu dira

	Guztira	EAE	NFE (*)	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA (% BERTIKALAK)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Helduentzako fikzioa	10,0	10,1	26,0	17,0	4,3
Eleberria	7,5	7,8	10,5	4,0	3,2
Poesia. Antzerkia	1,0	1,0	9,7	2,0	0,5
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	1,4	1,4	5,8	11,0	0,7
Haur eta gazte literatura	26,1	25,6	59,7	3,0	34,9
Unibertsitatekoak ez diren testuak	50,9	51,2	0,0	72,9	48,6
Haur Hezkuntza	4,8	4,8	0,0	0,0	4,9
Lehen Hezkuntza	25,0	24,8	0,0	42,0	28,9
DBH	13,6	13,6	0,0	14,9	13,9
Batxilergoa	0,8	0,8	0,0	0,0	0,8
Lanbide Heziketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Liburuak eta material osagarriak	6,8	7,1	0,0	19,8	0,0
Fikziozkoak ez direnak	9,1	9,0	11,6	2,1	10,7
Zientziak, G. Zientziak, E. Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	5,0	5,1	11,6	0,0	3,0
Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	4,1	3,9	0,0	2,1	7,3
Beste batzuk	4,0	4,1	2,8	5,0	1,5

(*) NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartu dira CAE

Helduentzako fikzioa izan da ale gehien argitaratu dituen hirugarren saila (ekoizpenaren % 10,0).

Helduentzako fikzioaren barruan, honela banatzen dira generoak: Eleberria, aleen % 75,4, Poesia eta antzerkia, % 10,0, eta Beste literatura batzuk, % 14,5




Argitaratutako ale guztiei dagokienez, % 93,5 Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) enpresek argitaratu dituzte.

Hiru sail batez bestekoaren gainera kokatu dira: Helduentzako fikzioa (guztizkoaren % 94,8), Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 94,0) eta Beste sail batzuk (% 96,7).

Beste Autonomia Erkidego batzuetako argitaletxeek guztira argitaratutako aleen % 5,2 hartzen dute, eta ehuneko hori gaintzen dute Haur eta gazte literatura (% 6,9) sailean.

4. grafikoa.- Sail bakoitzean euskaraz argitaratutako aleak, argialetxe pribatuetan, jatorriaren arabera (%-etan)



Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, euskaraz argitaratutako aleen kopurua % 0,7 murriztu da. Murrizketa Helduentzako fikzioa eta Haur eta gazte literatura sailetan, batik bat, gertatu da. Aitzitik, Fikziozkoak ez direnak eta Beste sail batzuk sailetan gorakada izan da, % 3,5 eta % 1,3, hurrenez hurren.

Aleen % 50,9 Unibertsitatekoak ez diren testuei dagozkio, eta, % 26,1, berriz, Haur eta gazte literaturari.

14. taula.- Aleak, sailen arabera. 2018-2022 bilakaera. 2021. Urtearekiko aldakuntza

Aleak (x 1.000)	2018	2019	2020	2021	2022	Aldakuntza (%) 2021/2022
GUZTIRA	2.823	2.983	2.666	2.807	2.787	-0,7
Helduentzako fikzioa	270	277	272	285	277	-2,8
Haur eta gazte literatura	712	745	673	748	728	-2,8
Unibertsitatekoak ez direnak	1.526	1.618	1.369	1.419	1.418	-0,1
Fikziozkoak ez direnak	222	238	244	245	253	3,5
Beste batzuk	94	104	108	109	111	1,3

Aleak (%)	2018	2019	2020	2021	2022	Aldea 2021/2022
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	
Helduentzako fikzioa	9,6	9,3	10,2	10,2	10,0	-0,2
Haur eta gazte literatura	25,2	25,0	25,2	26,7	26,1	-0,5
Unibertsitatekoak ez direnak	54,1	54,2	51,3	50,6	50,9	0,3
Fikziozkoak ez direnak	7,9	8,0	9,1	8,7	9,1	0,4
Beste batzuk	3,3	3,5	4,1	3,9	4,0	0,1

BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA

2022an, batez beste 2.011 ale argitaratu dira euskaraz izenburu bakoitzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuei dagokienez, batez beste 2.321 ale argitaratu dituzte izenburu bakoitzeko; Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuek 377, Ipar Euskal Herrikoek 631 eta beste Autonomia Erkidego batzuetakoek 783, izenburu bakoitzeko.

Sailen arabera, batez besteko argitaraldi handiena Unibertsitatekoak ez diren testuek izan dute: 2.645 ale izenburu bakoitzeko.

15. taula.- Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera, 2022an. Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE (*)	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA (BALIO ABSOLUTUAK)	2.011	2.321	377	631	783
Helduentzako fikzioa	1.380	1.556	336	381	696
Eleberria	1.562	1.683	317	403	760
Poesia. Antzerkia	898	1.087	350	202	700
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	1.119	1.385	350	443	500
Haur eta gazte literatura	1.829	2.101	415	605	933
Unibertsitatekoak ez diren testuak	2.645	3.204	0	736	701
Haur Hezkuntza	2.335	2.625	0	0	791
Lehen Hezkuntza	2.913	3.713	0	1.059	731
DBH	2.264	2.610	0	1.500	691
Batxilergoa	1.631	2.500	0	0	242
Lanbide Heziketa	0	0	0	0	0
Liburuak eta material osagarriak	3.167	3.720	0	400	0
Fikziozkoak ez direnak	1.293	1.385	300	430	853
Zientziak, G. Zientziak, E. Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	1.000	1.043	300	0	873
Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	2.018	2.429	0	430	814
Beste batzuk	2.011	2.140	500	1.008	700

(*) NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartu dira

Jarraian, batez besteko argitaraldiak azken hiru urteetan izan duen bilakaera ikus dezakegu taulan.

Batez beste, 48 ale gutxiago argitaratu dira izenburu bakoitzeko azken urtean.

Jaitsiera horrek ez du eragin uniformeoa izan sail guztietan, Haur eta gazte literatura sailean eta Fikzioak ez direnak sailean ez baita izenburu bakoitzeko ale kopurua gutxitu. Aitzitik, Unibertsitatekoak ez diren testuetan 121 ale gutxiago argitaratu dira, eta Beste Sail batzuetan 89 ale gutxiago.

16. taula.- Batez besteko argitaraldia paperean sailen arabera.

	2020	2021	2022	Aldea 2021/2022
GUZTIRA	2.141	2.059	2.011	-48
Helduentzako fikzioa	1.502	1.440	1.380	-60
Haur eta gazte literatura	2.033	1.829	1.829	0
Unibertsitatekoak ez diren testuak	2.782	2.766	2.645	-121
Fikziozkoak ez direnak	1.304	1.284	1.293	9
Beste batzuk	2.008	2.100	2.011	-89

KATALOGOKO IZENBURUAK

Argitaletxeek euskarazko 17.349 izenburu dituzte katalogoan.

2021eko katalogoko izenburuen % 83,3 EAEko argitaletxeenak dira; % 2,2 NFEko argitaletxeenak; % 1,8 Ipar Euskal Herriko argitaletxeenak; eta % 12,8 beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeenak.

17. taula.- Katalogoko izenburuak euskaraz, 2022an. Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA	17.349	14.453	376	304	2.216
% horizontala	100,0	83,3	2,2	1,8	12,8
Argitaratutako izenburuak	1.386	1.122	48	32	184
Katalogoko izenburuak / Argitaratutakoak	12,5	12,9	7,8	9,5	12,0

2022an, katalogoko izenburu guztien eta euskaraz eta paperean argitaratutako izenburuen arteko erlazioa 12,5 izan da. Proporzio hori aldatu egiten da argitaletxeen kokapenaren arabera: EAEko argitaletxe pribatuetan 12,9, NFEko argitaletxeen kasuan 7,8, Ipar EHko argitaletxeetan 9,5 eta beste AE batzuetako argitaletxeen kasuan 12,0.

KATALOGOKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA

Euskarazko katalogoan, Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 38,4) eta Haur eta Gazte literatura (% 29,4) sailak nabarmentzen dira. Bien batura, oro har, euskarazko izenburu guztien % 67,8 da.

Bi sail horiek katalogoaren guztizkoan duten pisua handiagoa da beste Autonomia Erkidego batzuetan, % 86,7ra iristen dira eta. Aldiz, NFE-n Helduentzako fikzioak presentzia handiagoa izan du (% 52,7), eta Ipar Euskal Herrian, berriz, Haur eta gazte literatura nabarmentzen da (euskarazko guztizko ekoizpenaren % 39,0).

Jarraian, katalogoko euskarazko izenburuak sailen arabera zehaztuta ikus daitezke hurrengo tauletan.

18. taula.- Katalogoko euskarazko izenburuak, sailen arabera, 2022an. Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE (*)	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA (BALIO ABSOLUTUAK)	17.349	14.453	376	304	2.216
Helduentzako fikzioa	2.815	2.481	198	106	30
Eleberria	1.934	1.662	163	91	18
Poesia. Antzerkia	347	314	20	6	7
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	534	505	15	9	5
Haur eta gazte literatura	5.107	4.072	133	119	783
Unibertsitatekoak ez diren testuak	6.663	5.453	10	60	1.140
Haur Hezkuntza	1.130	1.022	0	6	102
Lehen Hezkuntza	2.514	2.077	0	30	407
DBH	1.818	1.349	0	6	463
Batxilergoa	356	299	0	3	54
Lanbide Heziketa	5	5	0	0	0
Liburuak eta material osagarriak	839	701	10	14	114
Fikziozkoak ez direnak	2.366	2.121	25	3	217
Zientziak, G. Zientziak, E. Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	1.717	1.572	18	2	125
Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	650	549	7	2	92
Beste batzuk	398	326	10	16	46

(*) NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartu dira

	Guztira	EAE	NFE (*)	Ipar EH	Beste AEak
GUZTIRA (% BERTIKALAK)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Helduentzako fikzioa	16,2	17,2	52,7	35,0	1,4
Eleberria	11,1	11,5	43,4	30,0	0,8
Poesia. Antzerkia	2,0	2,2	5,3	2,0	0,3
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	3,1	3,5	4,0	3,0	0,2
Haur eta gazte literatura	29,4	28,2	35,4	39,0	35,3
Unibertsitatekoak ez diren testuak	38,4	37,7	2,7	19,6	51,4
Haur Hezkuntza	6,5	7,1	0,0	2,0	4,6
Lehen Hezkuntza	14,5	14,4	0,0	10,0	18,4
DBH	10,5	9,3	0,0	2,0	20,9
Batxilergoa	2,1	2,1	0,0	1,0	2,4
Lanbide Heziketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Liburuak eta material osagarriak	4,8	4,9	2,7	4,6	5,1
Fikziozkoak ez direnak	13,6	14,7	6,6	1,0	9,8
Zientziak, G. Zientziak, E. Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	9,9	10,9	4,8	0,5	5,6
Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	3,7	3,8	1,9	0,5	4,2
Beste batzuk	2,3	2,3	2,7	5,3	2,1

(*) NFEko bi argitaletxeren datuak EAEn sartu dira CAE


Banaketa geografikoari dagokionez, argitaletxe pribatuen katalogoko euskarazko izenburuen % 83,3 EAEko enpresenak dira; % 12,8 beste AE batzuetakoak; % 2,2 NFEkoak; eta % 1,8 Ipar Euskal Herrikoak.

EAEko katalogoko izenburuen proportzioak guztizko batezbestekoa gainditzen du Helduentzako fikzioa (% 88,1) eta Fikziozkoak ez direnak (% 89,6) sailetan.

Bestetik, beste AE batzuetan, katalogoko euskarazko izenburu bizien proportzioa handiagoa da Unibertsitatekoak ez diren testuetan (% 17,1) eta Haur eta gazte literaturan (% 15,3).

5. grafikoa.- Katalogoko euskarazko izenburuen banaketa sailen arabera, argitaletxe pribatuetan. Jatorriaren arabera (%)

GUZTIRA	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	83,3	2,2	1,8	12,8



Hurrengo tauletan, izenburu biziak azken 5 urteetan izandako bilakaera ikus daiteke, sailen arabera, baita aurreko urtearekiko aldakuntza ere. Azken urtean portzentajezko hazkunde handiena (% 5,0) Unibertsitatekoak ez diren testuak sailak izan du.

19. taula.- Izenburu biziak, sailen arabera. 2018-2022 bilakaera. 2021 urtearekiko aldakuntza

Izenburu biziak	2020	2021	2022	Aldakuntza (%) 2021/2022
GUZTIRA	15.430	15.725	15.962	16.749
Helduentzako fikzioa	2.468	2.535	2.619	2.742
Haur eta gazte literatura	4.690	4.732	4.775	4.947
Unibertsitatekoak ez diren testuak	5.781	5.901	5.988	6.346
Fikziozkoak ez direnak	2.123	2.188	2.204	2.312
Beste batzuk	368	368	376	403

